

# OTZA ZARA

Otza zara, bai, iturri, zu ta zure inguru.  
Surik eztozu ezer. Zori onez? txarrez?  
Erdi-naspil bizi-ta, ez nik jakin errez.  
Baiña gura zeunkedaz beti durunditsu.

Jaunak etzinduzan otz len-burubideetan:  
Lur-orpo, leza ta ibai al utsez sortzean,  
Ba-eban gar sutsua biotz zabalean.  
Zu be maitez egiña garai goen artan.

Eten barik darizun zidar-ur garbiak  
Maitasuna kantagai, ala oiñazea?  
Guztiontzat ludia samifitez betea,  
Baiña poz-alsi egaz zeruan txoriak.

Zu be, iturri gardena, ez beti malkotan;  
Ba-dozu biran naiko maitasun ekarkor:  
Oe apain eskinka oroldi zea or,  
Saratsa ta gurbiza beti lagunketan.

Eguzkiak, izpitsu, egu-erdirantza,  
Sirats gaixtoz josi nai ba'zaitu xiztaka,  
Or dozu lertxuna zut, burua makurka,  
Beti gordetzearren zu lerdun haratza.

Zure grifiaz daukazuz izadi-arnasak  
Inguruan leiaka, maitale bi iduri;  
Aize goiztar meia be ostoz dantzari:  
Eder dituru, antza, intziri ta ai-otsak.

Bidantia yoatru, bidez nekatua;  
Ur ozkirri ertzcan espana jarririk,  
Edari atsegarris polito aserik,  
Lenari darraikio, indar-barritus.

Biran —opagai ete?— zernaitik daukazu:  
Zenbait baso-egasti ta eundaka zugatz;  
Areak kantari erne, oneik itzel malatz .  
Zuk, alan be, barnean sugarrik eztozu.

Zure idurri antzeko ete nik biotza?  
Jaunak eskerrez ba'nau edertzen naroki,  
Zelan nik ordain antzo sua ez eskiñi?  
Enaiten, ez, sekulan, zu aiñatsu otza.

*Igotz*